

OHIKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN AKTA

Bilera-zenbakia: 2023ICGO0014

Eguna: 2023-11-28

Ordua: 20:00 – 20:25

Tokia: alkatetza

Bertaratuak

- Xabier Urdangarin Lasa Astigarragako EH Bildu
- Ainara Vazquez Martinez Astigarragako EH Bildu
- Naroa Del Orden Otero Astigarragako EH Bildu
- Maria Otaegi Velez Astigarragako EAJ-PNV
- Patxi Suarez Perez Udal talde euskal sozialistak

Bertaratu ez direnak

Idazkaria

- Kontxi Urdampilleta Santamaria

Aztergaiak

- 1.- 2023ko urriaren 31ko akta onartzea.
- 2.- Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketa.
- 3.- Lehen sektoreko proiektuak sustatzeko dirulaguntzaren berraztertze errekurtsioa ezezte eta akats zuzenketa onartzea.
- 4.-Garapenerako lankidetzaren programaren dirulaguntzak
- 5.- Sagardun partzuergoaren 2023ko ekarpena
- 6.-Beterrri Buruntza Mankomunitatea eta Udalaren arteko hitzarmena, Tokiko ekintzetako laguntzetarako.
- 7.-Excavaciones Astigarraga SL eta Udalaren arteko hitzarmena, Rofer-Buenaventurako harrobia betetzeko eta berreskuratzeko.
- 8.-Zarkumendegi HEA-21ean C, D eta lurzoru publikoan Xehetasun Azterlana
- 9.-7.2 Ipintza Gurutzegain H.E.U.-ren Hirigintza Jarduketa Programa.
- 10.-Txalaka Araneder S-27 sektoreko E-1 partzelaren Hiri Antolamenduko Plan Berezia.
- 11.-Zarkumendegi eta Bentak auzoaren artean saneamendu sarea lotzeko egindako azterlaneko aukera.
- 12.-Arrobitxuloko hiritartze-lanen obra-proiektua.
- 13.-Arrobitxuloko hiritartze-lanen kontratazio espedienteak.
- 14.-Astigarragako udal eraikin, egoitza eta instalazioak eta ikastetxeak garbitzeko zerbitzu-kontratuaren luzapena.
- 15.-2023IZIG0005 zehapen espedienteak ebaztea
- 16.- Informazio, galdera eta eskariak.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

Esan-eginak eta erabakiak

1.- 2023ko urriaren 31ko akta onartzea.

Akta aho batez onartu da.

2. Dirulaguntzen Plan Estrategikoa.

Alkateak aldaketaren nondik norakoa azaldu ondoren, ogasuna eta ondarea batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- *Dirulaguntzen 2020-2023 Plan Estrategikoaren aldaketa onartzea, erantsitako dokumentuan agertzen den bezala.*

Bigarrena.- *Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketa webgunean argitaratzea.*

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

3. Lehen sektoreko proiektuak sustatzeko dirulaguntzak: berraztertze errekurtsioa eta akats zuzenketa

Alkateak azaldu du azken tokiko gobernu batzarrak dirulaguntza lerro horren inguruan hartutako akordioaren aurka berraztertze errekurtsioa aurkeztu dela, eta hori aztertzerakoan ikusi dela akordio horretan akats bat zegoela, izan ere, dirulaguntza lerro horrentzako gehienez 3000 euroko laguntza onartu daitekelako. Ondoren, Hirigintza, etxebizitza, ingurumena eta mugikortasuna batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehenengoa.- *Aimara Mugika Otañok jarritako berraztertze errekurtsioa ezezteko udal arkitektoaren txostenean oinarrituta.*

Bigarrena.- *2023ko urriaren 31ean udal Tokiko Gobernu batzordean hartutako erabakia zuzentzea, udal arkitektoaren txostenean eta Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 legearen 109. artikuluan oinarrituta, eta ondorioz 3.000 €ko dirulaguntza ematea.*

Hirugarrena.- *Aimar Mugika Otañori akordio hau jakinaraztea, udal arkitektoaren txostenarekin batera.*

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

4.-Garapenerako lankidetzaren programaren dirulaguntzak.

Alkateak gizarte zerbitzuak eta adineko pertsonen batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Atal bakarra: *jarraian adierazitako dirulaguntzak onartzea:*

1. **AGUA DE COCO:** 10.000 € "Programa de protección infantil, especialmente niñas, frente al incremento de la vulneración de derechos en la región de Tuléar (Madagascar) proiekturako.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

2. *FEDERACIÓN DE ASOCIACIONES VASCAS AMIGAS CON EL SÁHARA: 5.137,53 € “2023-2024 ko Saharako Elikagai Karabana” larrialdia proiekturako.*
3. *AGUA DE COCO: 3.784,37 € “La Brigada PromODS” sentsibilizazio proiekturako.*

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

5. Sagardun: ekarpena 2023

Alkateak ekarpenaren zergatia eta helburua azaldu ondoren, ogasuna eta ondarea batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Bakarra.- 1 1000.433.01.432.20 2023 kontu-sailaren kargu 103.000,00 euroko ekarpena Sagardun Partzuergoari funtzionamendu-gastuei aurre egiteko onartzea.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

6. Beterri Buruntza Mankomunitatea eta Udalaren arteko hitzarmena, Tokiko ekintzetako laguntzetarako.

Alkateak hitzarmenaren nondik norakoak azaldu ondoren, ogasuna eta ondarea batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- Astigarragako udalaren eta Beterri Buruntza Mankomunitate arteko lankidetzeta-hitzarmena, 2023-2024ko enplegua sustatzeko toki ekintzetarako laguntzaren deialdiaren babesean Lanbide-
euskal enplegu zerbitzuak emandako ebazpenari lotutako proiektuak bideratzeko onartzea.

Bigarrena.- Alkatea baimentzea lankidetzeta-hitzarmena eta hitzarmena gauzatzeko behar diren agiri guztiak sinatzeko.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

7 Excavaciones Astigarraga SL eta Udalaren arteko hitzarmena, Rofer-Buenaventurako harrobia betetzeko eta berreskuratzeko

Alkateak hitzarmena sinatzearen beharra eta dokumentuaren nondik norakoak azaldu ondoren, Hirigintza, etxebizitza, ingurumena eta mugikortasuna batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin.

Lehenengoa.- Excavaciones Astigarraga S.L.rekin sinatu beharreko hitzarmena onartzea, Rofer-Buenaventura harrobia behar bezala leheneratzeko baldintzak arautzeko.

Bigarrena.- Alkateari hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea.

Hirugarrena.- Erabaki hau Excavaciones Astigarraga SLren ordezkariari jakinaraztea.

Laugarrena.- Erabaki hau eta hitzarmena Errenteriako udalari helarazi.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

8.-Zarkumendegi HEA-21ean C, D eta lurzoru publikoan Xehetasun Azterlana

Alkateak azaldu du Astigarraga Lantzen SA enpresa publikoak eremu horretan zuen partzela bat saldu zela, eremu osoa urbanizatzearen truke, eta azke hori gauzatzekoan ikusi dela aldaketa batzuk egin behar direla, eskatzen dutenak xehetasun azterlan bat izapidetza. Ondoren, Hirigintza, etxebizitza, ingurumena eta mugikortasuna batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin.

Lehenengoa.- *Hasierako onarpena ematea ZARKUMENDEGI 21 HJE eremuko "C" eta "D" lurzatiaren xehetasun-azterketari., egungo Plan Partziala ezarritako gehieneko lerroakurak betetzera baldintzatuz.*

Bigarrena.- *Dokumentua jendaurrean jartzea 20 egunez; erabakia GAO n eta lurraldean tirada handiena duen egunkarian edo egunkarietan argitaratuko da, eta Udalaren webgunean argitaratuko da.*

Hirugarrena.- *Ebazpen hau eta xehetasun-azterketaren dokumentua honako administrazio eta erakunde hauei bidaltzea, txostena egin dezaten:*

- *Uraren Euskal Agentzia.*
- *Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuko Kudeaketa eta Plangintza Zuzendaritza Nagusia.*
- *Añarbeko urak.*

Laugarrena.- *Construcciones Moyua SL-ri jakinaraztea Udaletxeko Erregistroan Urbanizazio Proiektuaren aldaketa eta Finken normalizazioa aurkeztu beharko dituela hilabeteko epean, Xehetasun Azterlana behin betiko onartzen denetik kontatzen hasita.*

Bostgarrena.- *Erabaki hau Construcciones Moyua SLren ordezkariari eta C lursailaren jabea den Astigarraga Lantzen SARI jakinaraztea.*

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

9.-7.2 Ipintza Gurutzegain H.E.U.-ren Hirigintza Jarduketa Programa

Alkateak Hirigintza, etxebizitza, ingurumena eta mugikortasuna batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin.

Lehenengoa.- *Hasieran onartzea 07 "Santiagomendi Zeharra" HEAko 7.2 "IPINTZA GURUTZEGAIN" HEUren Urbanizatzeko Jarduketa Programa, baldintza hauekin:*

- *Hirigintza-hitzarmena BI hilabeteko epean sinatuko da, JUPa behin betiko onartzen denetik kontatzen hasita.*
- *Urbanizazio Proiektua gehienez ere ZORTZI HILABETEKO epean aurkeztu beharko da, J JUPa behin betiko onartzen denetik kontatzen hasita.*
- *Hirigintza-eraikigarritasunaren % 15eko lagapenari dagokion zenbatekoa hirigintzahitzarmenean edo birpartzelazio-proiektuan zehaztuko da, udal-arkitektoak txostena egin ondoren.*
- *Ondoko lursailetan egin beharreko obrekin koordinatu behar diren urbanizazio-obrak Hirigintza hitzarmenean zehaztu eta kuantifikatuko dira.*
- *Urbanizazio-proiektuak udal-arkitektoaren 2023ko azaroaren 17ko txostenean definitutako zehaztapenak errespetatu beharko ditu. Zuhaitzei dagokienez, legez ezarritako estandarra bete beharko dute.*



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

Bigarrena.- *Usukoar Promociones S.Lri eskatzea eremua urbanizatzeko programak aurreikusten duen kostuaren %1eko bermea jartzeko, dokumentua behin betiko onartu aurretik.*

Hirugarrena.- *JUPari hasierako onarpena emateko erabakia GAOn argitaratzea, programaren edukiaren funtsezko elementu hauekin, eta jendaurrean jartzea 20 eguneko epean. Eraginpeko ondasun eta eskubideen titularrei jakinarazi beharko zaie.*

-Eremua. 07 HEA "Santiagomendi Zeharra" 7.2 HEU (IPINTZA GURUTZEGAIN).

-Saikapena: hiri-lurzorua.

-Kalifikazioa: bizitegitarakoa.

-Eraikigarritasun haztatua: 1.563 m² (t)

-Araubidea eta jarduteko sistema: Erregimena: pribatua.

-Jarduketa-sistema: hitzarmena.

-Egikaritze-unitateak: Egikaritze-unitate bakarra, 7.2 Ipintza Gurutzegain, 3.553 m²-koa.

-Lagatzeko lurzatiak: : e.1.2: 1.324,02 m² eta g.1 komunitatearen ekipamendua 1.449,97 m²

-Ezarritako epeak: Urbanizazio-obrak URTEBETEKO epean hasiko dira, urbanizazio proiektua behin betiko onartzen denetik hasita.

-Beste bizileku batzuk emateko programa: Ez dago birkokatzerik.

-Urbanizazio-kargen balorazioa: Urbanizazio-kargak guztira (BEZik gabe): 272.000 €.

Laugarrena.- *Usukoar Promociones SLri erabaki honen berri ematea.*

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

10.-Txalaka Araneder S-27 sektoreko E-1 partzelaren Hiri Antolamenduko Plan Berezia.

Alkateak plan bereziaren helburua azaldu ondoren, Hirigintza, etxebizitza, ingurumena eta mugikortasuna batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin.

Lehenengoa.- *HAPOk Txalaka-Araneder S-27 sektoreko E-1 lurzatiaren Hiri Antolamenduko Plan Bereziari hasierako onespina ematea, ondorengo zehaztapenak betetzeko baldintzarekin:*

- Ingurumen-txosten estrategikoak ezartzen dituenak.

- Astigarragako 27. Txalaka-Araneder eremuaren Plan Partzialean ezarritakoaren arabera, sotoa ez da konputagarri izango aparkaleku erabilera eskusiboa duen bitartean.

- Halaber, Plan Berezian proposatutako hegaldiek indarrean dagoen araudia bete beharko dute.

- Plan Berezian proposatutako estalki laua estalki berdea izango da.

- Generoaren ikuspegitik, hotelerako sarbidea gune irekian izango da, eta lurzati osoan ez dira puntu beltzak eta ikuspenik gabeak izango.

- Hotelaren aurrean eta bidegorriaren ondoan eraiki gabeko azalera libre trianguluarra lagapen publikokoa izango da.

- Baita hotelaren atzealdeko aparkaleku publikoari Ergobiako Biribilgunetik kotxe sarrera emango zaio eta bi muturretan kotxeentzako galibo bana ipiniko da, 2,10 mko gehieneko altuerakoa.

Hotelaren inguruko espaloiek irisgarritasun legeria beteko dute eta atzeko izkinean oinezko pasabide altu berri bat egingo da.

Bigarrena.- *Dokumentua jendaurrean jartzea 20 egunez, eta erabakia GAOn eta lurraldean tirada handiena duen egunkarian edo egunkarietan argitaratzea.*

Hirugarrena.- *Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari eskatzea ingurumen-txosten estrategikoa egin dezala.*

Laugarrena.- *Ebazpen hau eta Plan Partzialaren dokumentua honako administrazio eta erakunde*



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

hauei bidaltzea, dagokien txostena egin dezaten:

- *Uraren Euskal Agentzia.*
- *Sustapen Ministerioko Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusia.*

Bostgarrena.- *Erabaki hau ASTIGARRAGA EUROHOSTELS Siren ordezkarietara jakinaraztea*

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

11.-Zarkumendegi eta Bentak auzoaren artean saneamendu sarea lotzea

Alkateak azaldu du Bentak auzoan ez dagoela saneamendu sarea, eta Zarkumendegin orain jarri behar denez, aztertu dela auzo horretara sare hori eramateko dauden aukera desberdinak, bi puntuen arteko distantzia ez delako handia. Jarraian obrak eta zerbitzuetako batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin.

Bakarra.- *Onartzea Zarkumendegi eta Bentak auzoaren artean saneamendu sarea lotzeko azterlaneko 1. aukera, LBR INGENIERIA enpresak idatzitakoa 2020ko otsailean.*

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

12.-Arrobitxuloko hiritartze-lanen obra-proiektua

Alkateak obraren nondik norakoak azaldu ondoren, obrak eta zerbitzuak batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin.

Bakarra.- *Onartzea Oina Ingeneritza eta Ormazabal Arkitektura & Hirigintza enpresek idatzitako "Proyecto de Urbanización de Arrobitxulo Kalea en Astigarraga" izeneko obra-proiektua.*

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

13.-Arrobitxuloko hiritartze-lanen kontratazio espedientea.

Alkateak ogasuna eta ondarea batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- *Obra-kontratu honetarako prestatu diren baldintza plegu administratiboak onartzea.*

Bigarrena.- *Kontratazio espedientea onartzea eta esleipen prozedurari hasiera ematea, KALD-0013 kreditu transferentzia onartzearen baldintzapean.*

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

14.-Astigarragako udal eraikin, egoitza eta instalazioak eta ikastetxeak garbitzeko zerbitzu-kontratua.

Alkateak obrak eta zerbitzuak batzorde informatiboaren irizpena aurkeztu du, eta akordio hau hartzea proposatu du:



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

Lehena.- Udal eraikinen garbiketa zerbitzua emateko (1.LOTEA), Astigarragako udalak UTE ASTIGARBI enpresarekin sinatuta duen kontratua LUZATZEA.

Bigarrena.- Udal eraikinen garbiketa zerbitzua emateko (2.LOTEA), Astigarragako udalak GARBIALDI, S.A. enpresarekin sinatuta duen kontratua EZ LUZATZEA, eta ondorioz, 2024ko otsailaren 28an amaitutzat ematea.

Azaldu du zerbitzu-kontratua martxoan bukatzen dela, eta langileen lan-hitzarmen berria indarrean sartzera doala, kokolan jartzen duena kontratuaren oreka ekonomikoa. Baina ezinbestekotzat hartzen dela kontratua luzatzea, garbiketa-zerbitzurik gabe gelditzeko arriskua ekiditeko, dena den, asmoa dela lizitazio berri bat martxan jartzea ahalik eta azkarren.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

15.-2023IZIG0005 zehapen espedientearen ebaztea

Alkateak zehapen espedientearen nondik norakoak aztertu ondoren, bozeramaile batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin.

Lehenengoa.- E.Z.R andreari 751 euroko isuna ezartzea, urratzeagatik Astigarragako Udalaren animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen udal-ordenantza (2002ko maiatzaren 10eko GAOn argitaratua) eta, zehazki, ordenantza horren 54. artikulua.

Bigarrena.- E.Z.R andreariakordioaren berri ematea, eta horrekin batera txosten juridikoaren kopia bat helaraztea.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

16.-Informazio, galdera eta eskariak

Alkateak bilkura amaitutzat eman du, eta nik, Idazkariak eztabaidatua eta erabakitakoa jasota gera dadin honako agiria egin dut

Astigarragan, 2023ko azaroaren 28an

Kontxi Urdampilleta Santamaria
Ordezko idazkaria